

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Salbador Anakabe Mendieta Masako

*Lekeitio,
Bizkaia (1925)*

Aurkibidea



Biografia



1925. urtean munduratu zen Txitxarro kaleko (Ezpeleta kalea) zazpi neba-arrebako familia batean, bera zen etxeko gazteena. Itsas munduarekin lotura izan du betidanik: bere aita arrantzalea zen, ama saregina eta anaiak eta bera ere arrantzaleak. Umetan, 9-10 urte inguru zituenetik gerra hasi arte, Pasaiaiko San Pedron egon zen gurasoekin, aitak bertan egiten baitzuen lan. Umetan eliza atzeko eskolan ibili zen. 13 urtegaz itsasoan hasi zen eta arrastrean zein baxuran ibili zen 60 urtera arte sugin (fogonero) eta makinista moduan. [Bitoria Aboitiz](#) saregin lekeitiarrarekin ezkondu ostean, sei seme-alaba izan zituzten.

Zintak

LEK-045

- **Proiektua:** Lekeitioko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leniz, Jokin - Zugadi, Aitor
- **Data:** 2011-04-27
- **Iraupena:** 30 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

LEK-046

- **Proiektua:** Lekeitioko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2011-04-27
- **Iraupena:** 52 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Antzinako Lekeitio

- **Erref:** LEK-046/002
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:01:42. **Bukatu:** 00:03:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

<p>Antzinako Lekeitio nolakoa zen kontatzen du: portua, alondiga, nesken eskolak, don Claudioren lorategia, tabernak... Eta goialdean, orain etxeak dauden lekuan, ortuak.</p>

Transkripzioa

-Zelakoa zan zure umetako Lekitto?

- Lekitto joer... kontateko be, portua ta honek , hamen... honek etxiok ez euan, hamen monja ta honek, hamen alondigi behian ta goixan... emakumien... nesken eskolak, bai. Ta hor e... txinuen hor e... han eguezanak hamendiko alderdixan jardiña zan, Don Klabeliñona, jardin handixe. Ta aurrin be halaku... ezebez obra bat, gero ein eben, ortu be bai. Zulua badakixue nun daon? Ha tabernia? Han obra bat ta gero handik ortuak, ortuak ta ortuak zirian, bai.

-Orduen kale gitxi euezan hemen?

- Ez, ez, hamentxe kruzian hamentxe taberna bat ta goixan aurrin etxik barriduta daoz ta hori Manolo tabernia, hamen zelan daoz taberna bi? Ta gero hori, Batzokiko aurrin, Batzokiko aurria, ha dana zan ortua, ortu dana. Han euen dana ortua, dana ortua. On dana etxiak, lehen dana ortua.

2. Eskolako maisu-maistrak

- **Erref:** LEK-046/003
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:03:17. **Bukatu:** 00:04:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Eliza atzeko eskolan ibili zen. Fraideetan ere egon zen eskola. Gernikarra zen maisua, "Txatua" esaten ziotena. Bere maisuen izenak. 'Maistra Surrandi' esaten zioten beste bati.</p>

Transkripzioa

- Eta esan dozu hemen eskolia egon zala.

- Hamen? Bai, hamen be bai ta... bai, ezagututen dot.

- Zu hemen ibili zifien?

- Ez, ez, ez. Ni han, elixin atzian euan eskolia. Hantxe ibili nintzan, harik eta, haurixe, 13 urtera arte edo.

- Elixat zian?

- Elixat zian, bai. Baakixu nun daon elixia?

- Bai.

- Ta lehen gasoliñia [...] halakua? Hantxe [altzata dozen] etxiak? Han eoten zan, ba, abadien etxia ta eskolia mutillena. Ta fraillietan eoten zan beste eskola bat, partikularraaz. Horrek, gernikarra, `Txatua´ esaten eutsena, maixua. Fraillik.

- Ta zuen maixua?

- `Txatua´ esaten eutsen, `Txatua´. On hil da, baiña semia bixi dau, haurtxe moilla partian bixi da semia.

- Ta zuen elixat zian atzeko eskolako maixua?

- Ni ibili nintzan Don Julianeaz, Don Julian esaten eutsena. Ta bestia Don Anestasio. Haretxegaz.
- Euskaldunak?
- Ta beste bat be, gaztiao ixan nintzanian, honeaz, orduan `Maistra surrandi´ esaten eutsaun. Zelako ixena? Ez dakit ze ixen eukan be. Ha urte asko ein eban harek, [...] urte asko [...].

3. Eskola erdaraz, dotrina euskaraz

- **Erref:** LEK-046/004
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:04:52. **Bukatu:** 00:06:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Gazteleraz zen eskola. Bakarrik kofradia gainean erakusten zuten euskaraz. Dotrina sakristian ematen zuen abadeak astean behin. Gaiztoak omen ziren abadeak; batez ere nazionalekin batera sartu zen bikarioa, "Zapataundixa" esaten ziotena.</p>

Transkripzioa

- Eta euskeraz dana?
- Bai, bai. E, erdera horrek. Gu ya... erdera, maixuk erdera eitten gaittuzen "en aquellos tiempos". Euskera kofradixan eukitxen eben, kofradixan [...], kofradixan zaharrian eoten zan, goidxan, eskola bat. Ta haretxek be, lekittarrak emoten eben han, kapittanak eta mariñero tartekuai eskolia. Harek bai [ein eskuen].
- Baiña zu eskolara errepublikan hasiko ziñen?
- E? Bai, bai.
- Errepublikan hasi ziñen eskolara?
- Bai, ba zenbat urte eukiko neban ba? Ba sei bat urte edo, bost ero, sei edo, Errepublikan.
- Errepublikan.
- Bai , bai.
- Ze gomutaten dozu errepublikakua?
- Nik Errepublikakuk... Ai ! Gazti nintzan ta nik ez dakit /eztakitx/ horrek bape.
- Ze, eskolan ez zan katolizismorik eta... emongo edo, edo bai?
- Bai euan.
- Bai?
- Bai. Berton [...], eskolan barik, auntxe akorda, eskolan barik, eskolin euan, albur euan sakristidxa esaten eutsena habitaziñoiak. On be... Elixiana zan. Hantxe euazan, habitaziñoiak, eta hantxe emoten eben katezismua, abariak. Lantzin... astin behin-edo emoten eben. Abarik be gaiztuo...! Bai.
- Ze abade?
- Bai, bai.
- Ze abade zan gaiztua?
- Bo! Gero azkanengo eon zana, ha bikaridxua, haunek nazionalakin sartu zana. Harek, "Zapata handi" ta bikaridxua, harek bai gaiztuak, reketiak.

4. Eskolan piper egiten bazuten, egurra

- **Erref:** LEK-046/006
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:07:26. **Bukatu:** 00:08:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Eskolako materiala doan zen, baina bertan utzi behar izaten zen. Egunero joaten ziren eskolara. Eguen arratsaldez eta domekaz jai. Piper egiten zuten sarri. Gero, etxean eta eskolan egurra.</p>

Transkripzioa

- Eskolarako... ze eroaten zenduen zuek eskolara?
- Eskolara?... eskolak bertan emoten genduzen, ee... Kuadernu ta lapixa , ta liburuk be bertan leidu ta... gero kanporatzian itxi. Bertan. Bai, kuadernu ta debalde emoten [gaittuzen] .
- Eta eskolan egunero?
- Bai. Eskolara egunero. Eguen arratsaldian bakarrik, ta domekan , jai.
- Eta biharra eguenien be eskolara?
- Jaaa..., hori... segun. Ta lantzin behin e... eskolara ... E eskolara noia , ta hor zihar! Eskapata , gero ba... papela amari eruan ta "egueldixa " edarrak gero... Lehenengo etxian ta gero berak , maixuak.

5. Pasai San Pedron gerra aurretxoan

- **Erref:** LEK-046/008
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:08:44. **Bukatu:** 00:10:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Gerra aurretxoan, aitak Pasaia San Pedron egiten zuen lan, eta hara joan zen bera ere. Han ibili zen eskolan denboraldi batez. Gero, umetan egindako hainbat lagun pasaitar aurkitu zuen soldadutzan.</p>

Transkripzioa

-Gerria etor zanin be... ni amaaz eon nitzan, aittak biharra eitten eban Pasaixan, baserrixen, ta haraxe junda eon nitzan, ta hantxe eskolara ibili nintzan pixkaten, San Pedron. Eta gerriak atrapatzen pasa giñin hona.
-A! San Pedron egon ziñen?
-Bai.
-Gerria atrapa eben egune, gerria hasi zanian... bai...
-A! Eta zenbat urtegaz joan ziñen ba San Pedrona?
-Ni San Pedron zenbat e... zenbat eukiko neban ? Bederatzi. Ba hamar hara jun nitzanin... bederatzi-hamarreaz edo... gero gerria..., entseidako atrapa gaittuzen gerrick eta... bai... eta gero ba pasa giñin hona, eurak naziolanak hartun orduko ba pasa giñin hona.

-Eta San Pedroko biximodue zelakue zan?
-Han ezebez gu e... han be gaztik giñin ta, aitta biharrian, ama... hirurok bixi giñian, beste arrebak eta anaixik eta Lekitton bixi zirian, biharrian eguezan da ta... ezebez...
-Ta giputx artien...?
-Giputx artien..., baiña gero soldau jun nintzanien e, hemeretzi urteaz, han ibiltten giñin kuadrillian danak zirin neure edadekuek eta kuadra giñian sei, sei kuadra giñian e kuartelian, ta lehenengotan ikusitta... Ño! Ha ez da ba Fulano ba? Txo! Bai! Tak... ostera be sei, sei, neugaz zazpi, kuartelien kuadra giñian.
-Eta San Pedron eskolara be, bertan?
-Bai, bai... ein neban denbora gitxi han, badakixu /bakixu/ gerria etorri zan, denpora gitxi ein neban.

6. Emazteak lana sendo egin, baina kotizatu barik

- **Erref:** LEK-046/011
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:12:32. **Bukatu:** 00:13:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak

Laburpena:

<p>Denetara egiten zuen bere andreak: saregin, arraina barkutik husten, kontserba-fabrian... Erretiroa hartzeko orduan jabetu ziren hiru urte bakarrik zituela kotizatuta.</p>

Transkripzioa

- Non ibiltten ziren saregiñek biherrien?
- Saregiñek, fabrian.
- Fabrian?
- Fabrian be bai. Ta baporen arraiñak deskarga, kamionak kargaten be bai, berentzako jaubintzako.
- Ez zen tinglauan egoten, saregin?
- Sarein be bai, danetara ein dau nire andriak, danetara. Ta beti harek, fabrian badakixu. Sareiñak orduan, ordun denporan, ba, ez euken jubilaziñorik, ez eben erriaten ta. Ta nire andrik ta fabrian, jaube bateaz eitten eban, filetiak ta buru kendu, danetan eitten eban, ta gero baporetik arraiñak urteten ebanian, horrek kamionak moillan ixten eben, kamiona karga. Ta gero andrik ta sarri esan "atun hori! tra dios! zuek seguru daukozu ta". Seguru? Hirurogei urteaz harek be, hasi zanetik biharrian, hiru urte bakarrik pagata.

7. Errazionamendu garaiko kontuak

- **Erref:** LEK-046/014
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:15:50. **Bukatu:** 00:17:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Gose handirik ez du berak pasatu, baina badira pasatutakoak. Errazionamendua udaletxe azpian hartzen zen. Garbantzua eta dilistak kokoaz egoten ziren sarri. Ogia, egunean txusko bana. Baserritarrekin harremana zutenek jenero gehiago eskuratzen zuten.</p>

Transkripzioa

- Ta goserik pasa zenduen?
- Gosia, gosia gitxi, ez, gitxi. Baiña pasa da, bai, pasa da. Nik neuk halako gose handirik, gosia pasa dot neuk be, baiña halako handirik ez. Baiña askok ba...
- Eta rasionamentua esan dozu lehen. Nun hartzen zenduen ba?
- Aiuntamientuen azpidخان, ta aiuntamientua [...]. Aiuntamientua. Han azpidخان zelan dao ha, ha arkupia? Ba hantxen behian hartzen zan.
- Ta zer?
- Lentejia-edo, garbantzua-edo, ta garbantzua gero ezin ein ta, gogorroo. A saber nundik [...]. Indiarrak kokukin ta lentejia kokukin ta...
- Baiña jan.
- Jan ein bihar! ze ba?
- Eta ogidxa?
- Ogidxa, ogi baltza. Panaderidxia, ha be rasionamentua. Haunakoxe txusko bana bakoitxentzako egunian. Ta baserridخان eitten ebenak, ba, ogidxa, ba, baeuan. Ba baserrittarrari edo. Ordun esnedunak eukitten genduzan. On dendetan dao esnia, baiña orduan baserrittarrak eta. Harek, ba, erosi hareri ta... danetara ein bihar.

8. Karabineroekin konpondu behar estraperloan jarduteko

- **Erref:** LEK-046/015
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:17:15. **Bukatu:** 00:20:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Estraperloa egiten zen itsasoz: ogia, tabakoa... Karabineroekin konpondu behar lehenengo, eskatzen zutena eman behar. Erdaldunak ziren denak. Non egiten zuten guardia eta non zuten kuartela. Guardia Zibilak eta karabineroak erakunde berbera osatu zuten gerora. Karabineroen emazteak antxoari burua kentzen ibiltzen ziren fabrikan, udaberrian.</p>

Transkripzioa

- Eta itsasoan-eta estraperloa baeuen?
- Bai, ogidxaaz ta, estraperlu beti.
- Bai?
- Bai.
- Ta ze, ze ibiltzen zan estraperluan, ze eoten zan?
- Ogidxa, ogidxa ta haurixe.
- Olidxua ta?
- Olidxua ta, ta tabaku be bai ta.
- Tabakua?
- Tabakua be bai ta. Horrek merkantietakuk, horrek ekarten ebena, tabaku be bai.

- Eta karabiñeruekaz zelan?
 - Lehenago karabiñeruari emon bihar! [Harek ra!] ta karabiñeruari honenbeste, berak eskatuten dabena.
 - A bai?
 - Bai.
 - Ordun karabiñeruekaz ondo konponduten ziñien?
 - Derrigorrian konpondu bihar!
 - Bertokoak izaten zien edo...?
 - Ez, kanpokuak, danak kanpokuak, erdaldunak, osea, hamen eoten zinak danak erdaldunak.
 - Ta nun eoten zin?
 - A saber nunguk ixaten zin.
 - Ez, nun egon, eurak nun egoten zin?
 - Baakixu nun don Serenga? Ha arkupia? Hantxe eoten zan kaseta bat, kaseta bat. Han eitten eben guardidxa. Gabetan-ta hantxe, portu ikusteko. Ta eurak bixi, hamen zubidxa, zubidxen aurrin zelan dao [...] Han euan bloke bat, hantxe. Ta horrek be, guardia zibillak bixi zirian, haur zelan daon portalien, Kriston portalien, botikia? Haren albuak, on etxiak-eta, bota ein eben lehengo zaharra, ta hantxe euken kuartela, bai.
 - Ta guardia zibillakaz?
 - Bai, han. Ta gero ein zirian horrek kuerpo bidxok bat, bat. Bai.
 - Ta karabiñeruakaz ondo, eta guardia zibillekaz?
 - Guardia zibillak portun ez zirian, txarto, horrek gaiztuak [...], horrek gaiztuak.
 - Gaiztuak?
 - Karabiñeruak [...] gero danak ein zirin bardiñak, e? Kuerpo bat ein zirin danak eta.
 - Ta karabiñeruak ze uniforme edo ze ibiltzen eben?
 - Ezer be ez harek. Hamen, baadaxu, Lekitton eoten zirin karabiñeruak arraiña-ta emon-ta. Andrak fabrikan eitten eben biharra primaberan buru kentzen.
 - Karabiñeruen andrak?
 - Andrak, bai.
 - Antxoa sasoiak, oin?
 - Antxoa sasoin, bai.

9. Zazpi kontserba-fabrika Lekeition

- **Erref:** LEK-046/016
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:20:04. **Bukatu:** 00:21:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

<p>Emakumeak eta umeak jarduten zuten kontserba fabriketan. Zazpi fabrika egon ziren Lekeition. Amoroton ere ipini zuten bat, baserritarrek jarduten zuten han.</p>

Transkripzioa

- Hamen eon zirian zazpi fabrika edo. Bai.
 - Orduen, bihar faltarik ez zan egon, eta diru faltarik, edo zer?
 - Bai, bai. On ez dao ezer be.
 - Eta fabrikan andrak bakarrik?

- E? Bai, mutillak be bai, ba, horrek, mutiltxuak be bai. Hamabi urte ta neskak-eta, eskolara be jun be ez ta, baakixu, dirua halakotuteko. Bai.
- Ta zazpi fabrika?
- Bai.
- Zeintzuk zien?
- Bai, hamentxe Garabillenien bat, bat, Erga bi, Garabilla, beste Zesario Garabilla lau, Ortiz bost. Bai, zazpi bat eongo zien. Gero hamendik, hor be bai, Amoroton be bai ipini eben fabrikia.
- A bai?
- Bai, Amoroton be bai. Ta ha be, baserrittarrak-eta, hamendik eruten eben arraiña ta pagaten eben.

10. Praka zaharrak bainujantzi

- **Erref:** LEK-046/018
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:23:00. **Bukatu:** 00:24:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

<p>San Antolinetan Ondarrean egiten zen jaia. Ez zuten bainujantzirik, praka zaharrak ziren bainujantzia. Kaitik Karraspioraino igerian joaten ziren. Emakumeak ez ziren bainatzen.</p>

Transkripzioa

- Ta ze eitten zenduen San Antoliñetan?
- Ba ahal dana. Hortik edo hemendik-edo ibili ta... hondar, hondarrera.
- Hondarrera?
- Bai, sarri ein dou, han Txitxarro kaleko, on, han grua dona ha moillan? Ha sikatu eitten zan. Ha portua ni gazti nintzanin sikatu eitten zan. Ta bertan itxi, jantzi praka zaharrak. Ordun ez euan trajebaiñuk erosteko dirurik be, ta etxetik, ra, jua ta Karraspidxora. Ibili han eguerdira artian ta igiri, ostera be, etxera.
- Eta trajebaiñurik-edo bai?
- Nok eukan trajebañu erosteko diru ba? Zer? Praka zaharrakin-ta, atara.
- Baiña ze, praka laburrek?
- Bai, bai, bai. Ordun iñok be [...] harek eta itsasunak zien. Itsasuan zabixenian ba, baiña bestela laburrak.
- Andrak?
- Ba, akostunbra eitten da haretan.
- Baiña andrak joaten zien Karraspidxora?
- Andrak? Gitxi.
- Hondar txikiñera?
- Gitxi, gitxi. Gure gazte denboran andrak gitxi. Kridxadak-edo udan etorten zien aberatsakin. Bai, umeren batzugin juten zirin bat edo beste, baiña gitxi. Honek gero diraz, gero. Ondo eitten dabe, ganera, [aprobau] ixatie.

11. Kaxarranka San Pedrotan

- **Erref:** LEK-046/019
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:24:42. **Bukatu:** 00:27:09

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

<p>San Pedrotan Kofradiak ordaintzen zuen ardoa. Ez ziren itsasora (atunetara) irteten uztailaren batera arte. Kaxarranka eta ezpata-dantzariak egoten ziren. Murelagatarrek urte askoan egin zuten dantza hori</p>

Transkripzioa

- San Pedrotan, ze gauza?
- San Predrotan? San Pedrotan emoten gaittuzen bakotxari litro biña arda kofradixan, baiña gu gaztik giñin artian, ta etxekuk, etxera eruten genduen. Baiña gero ba, geu irabazten hasi giñenin be geuk eukitten gendun ta etxera altzaten eben, bai, ta kofradixak pagaten eban, baiña on eitten dana San Pedruk ta San Pedro Txiki eguna ta... Guk urteten genduan San Pedro Txikin gabeko hamabixetan. Jentia bakixu hasi ta mozkorraz juten ta gero hori kendu eben, San Pedro Txiki egunian gabeko hamabixetan urteti itsasora, bai.
- A bai?
- Bai.
- Ta ordurarte ez ziñien urtetan San Pedro egunez?
- Ez, gu hurrengo, junia, juliun batian urteten genduen.
- Ta ze egoten zan?
- Atuna, atuna.
- Atuna?
- Atuna.
- Baiña San Pedrotan zer egoten zan gaztientzat herrixen?
- San Pedruak ezebez, e kaxarrankia ta plazan jantzan, hor, zelan da... Ezpata jantzarixak, ezebez.
- Nor ibiltten zan, nor igoten zan kaxarrankara?
- Ba ni gazti ixan nintzanin hori zan, askok, askok igon/ ion/ dabe ta, hori zan neure lagun baten, Kazorren aitta zan, Iñazio, Iñazio Murelaga, haixe zan. Gero ba etorri diaz, euren razia Murelagatarrak ixan diraz. On azkanengo dagona /dona/ Mendexarren seme bat da, Mendexarra, gaztia, baiña urte askuan bertako familiko razi ixan da. Jakin ein dabe /iñddabe/ jantzan ta.
- Ta beti Murelagatarrak ixen diez?
- Bai, asko, urte askuan.

12. Andrearen etxera ezkondu zen

- **Erref:** LEK-046/021
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:27:59. **Bukatu:** 00:29:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Kaian ezagutu zuen emaztea, saregina zen eta. Salvbдорrek hogeita lau urte eta andreak hemezortzi ezkondu zirenean. Arreorik eta horrelakorik ez zuen eraman. Emaztearen etxera ezkondu zen. Dirurik ezin aurreratu, amari eman behar izaten zion erdia eta.

Transkripzioa

- Eta andrie?
- Andria?
- Zelan ezagutu zendun?
- Nire andria zelan ezagutu neban? Hamentxe portuan, saregiñen-ta, baakixu, harek beti sariak josten eta, hantxen hartun amistadia eta. Gazti zan, nire andria ni baiño sei urte da gaztiao.
- A.
- Bai. A, amistadiaittik, halakun ta, beti ixaten da.
- Orduen, gazte ezkondu ziñien? Zuk hogeta lau eta berak?
- Hogeta lau ta berak hamazortzi.
- Hamazortzi? Joe!
- Bai. Orduan gazte eitten zan.
- Ezkondukeran zuek arreorik-edo ein bihar izan zenduen?
- Ez, ez, arreua? Soiñian soiñekukin ta, norberen arropakin... Ni eurenera, andrien etxera jun nitzen.
- Eta ez zendun eroan abitaziñoa-edo, ixarak-edo?
- Ezta, ezta. Bergara kalera. Ez, horra, kalle Atxabalera.
- Kalle Atxabal.
- Bai.
- Aja. Eta ez zendun, orduan, ezer be ez eruan?
- Ezer be, arreua nok eukan, ba, dirua arreua eitteko, ba?
- Bueno, biharra eiñikua izan ziñan ya zu.
- Biharra eiñikua, bai, baiña diru gitxi.
- E?
- Ta neuk gastau.
- Dana gastau?
- Gastau. Amari be emon ein bihar, harek deskontua [...] amari.
- Amari dirue?
- Amari, erdi-erdidxa.
- Eta ezkondu ta gero andriari?
- Andriari gero.

13. Brouard familiarena zen autobus konpainia

- **Erref:** LEK-046/025
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:32:33. **Bukatu:** 00:33:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak

Laburpena:

"Compañía de Automoviles Vascongados" eta "La Esperanza" autobus konpainiak izan ziren orduan. Lehena Brouard familiarena zen, atentatuz hil zuten Santi Brouard mediku eta politikoa ospetsuaren aitarena. Frantsesak ziren jatorriz.

Transkripzioa

- Zein zan Lekittora, bueno, zuk ezagutu zendun lehenengo kotxia Lekitton?
- Ez dakit. Ez dakit. Ez dakit.
- Edo nok eukitten eban kotxie?
- Ni gaztia nitzanian, "Compañía de Automoviles Vascongadas", eta bestia hori euan, "La Esperanza", ha bestia. Ta hau "Compañía de Automoviles Vascongadas", horrek, Brouard, Brouard. Ha mediku, zelan ha hil eben? Haretxen aittak. Horrek frantsesak edo zirian, Brouard. Haretzek ein eben lehenengo. Hamen Lekitton bixi zirian. Hamentxe... hamentxe goixan bixi zirian.
- Eta, ordun, horrek?
- Ha be garbittu eben ta...

14. Munduko leku askotan ibilia arrantza dela eta

- **Erref:** LEK-046/028
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:36:11. **Bukatu:** 00:36:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Itsasoa » Arrantza motak » Alturako arrantza

Laburpena:

<p>Gehiago ibili da hegazkinean taxian baino. Iraken, Hegoafrikan eta beste leku askotan ibilia da arrantza kontuengatik.</p>

Transkripzioa

- Gehixao ibilli naz taxixetan, baiña abionetan.
- A bai?
- Bai. Ia, Persikora ta juteko, Durbanera ta Ciudad de Cabon ta zihar eta...
- Persikoan eta egonda zaoz?
- Bai. Irakera jua, Corralalen deskarga, gero gasoliña abionen kargau, Durbanera ekarri. Durbanetik ostera be Nueva Orleansera. Gero bueltan ostera be han Ciudad del Cabon geldittu barkuan, gabarriaz ekarri biberak. Ia, halantxeik, gero ostera be Iraketik etxera.

15. Itsasoa aurkitutako "gomekin" dirua egin

- **Erref:** LEK-046/029
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:36:58. **Bukatu:** 00:41:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak

Laburpena:

<p>II. Mundu Gerran aliatuen hegazkinek kautxuz zamatuta zetozen kargauntzi alemaniarrak hondoratu zituzten. Kautxu ("goma") hori azaleratu

zenean, arrantzaleek itsasotik bildu eta negozio handia egin zuten Salbadorren amak etxea erosi zuen diru harekin. Lehenengo Galizia aldean lokalizatu zituzten, baina gero askoz ere hurbilago. Berak 16.000 pezeta irabazi zituen 16 urterekin. Koinatuaren ontzian joan ziren bila. 18 lagun ziren.</p>

Transkripzioa

- Lehen aittatu dozu momentu baten gomana, zelan zan hori, goman asuntua?
- Zein?
- Gomana, gomak batu zenduzenekoa.
- A! Gomak? Lekitton! Hamen, Frantzidxako kostan; lehenengo Galizidxan, soltian. Ta gero hamen bertan. Bai, hamendik zenbat milla eongo zan ba? Burdeos ganian-edo, edo barrunao, barrunao. Bai Lekitton ordun zortzi baporek-edo, sei bapore, zortzik-edo, ondo irabazi [genduen].
- Aberastu?
- Aberastu? Amari emon neutsazan nik eta.
- Amari?
- Amari, ba, soltero neuan ta. Ondiok, baakixu zenbat? Nik ordun hamasei urte neukoizan. Amak etxia erosi eban.
- Klaro, amak etxia erosi. Ta ze pasau zan gomakaz?
- Ze, ze, ze urtetan?
- Zer pasa zan?
- A! Gerran abionak.
- Gerra mundiala?
- Gerra mundialian bota ebezen, ba, barkuk, merkantiak, hondora alemanak. Ta gero, ba, hondun euazan ta handik denborara, ba, ordun eskotillak be, eskotillak esaten eutsauna, on burdiñakin zarratuten diraz, baiña orduan egurrezkukin euan zarratuta. Ta egurra usteldu zanian, harek, gomia azalera etorten da, urten ahala kautxua, urten ahala.
- Ta zelan entera ziñien ha pasa zala?
- Auntxe esango dotsut hori be. Lehenengo Galizidxan bai, entzun, lantzin bat topata, ekarri ebazan, ekarri genduzan, hirurogeta hamar. Ta gero bestian ekarri genduzan [hirurogei]. Halako fardo hadidixak zirian. Bestian ekarri genduzan beste hogeta hamabost edo. Biaje bi Galizidxara. Gero, etorri giñian, negua zan ta Lekittoko pareja bat urten eban, ta topa eben gomak. Ta etxeruntz datozela, bete zirian ta bat ein zan Frantzidxako kostan enbarranka, ta bestia allaa zan. Ta harek emon gaittuzen guri situaziñoia nun daozen, situaziñoia nun daozen, ta gu... ta ein genduan urten gabaz. Lau barku. Konpaiñika, e? Ekarri genduzan bakoitxak berrehun ta piku ta. Gero, ba, gorde genduzen ta gero etorri zirin billa ta eruan ebezen ta gero paga gaittuzen. bai.
- Ta zemat diru akordun dekozu?
- Nik neuria esan dotsut ze toka jaten: hamasei.
- Hamasei urte?
- Bai.
- Ta zemat mille pezeta?
- Hamasei milla pezeta, ba, ta hamasei urteaz.
- Hamasei milla pezeta?
- Hamasei urteaz.
- Horregaz bi pisu bai Lekitton!
- Cuarenta y dosian zan. Bai.
- Horreaz bi pisu erosteko beste bai! Bi pisu paseu.
- Bai, baiña beti ixaten da... Etxin asko geuazan ta.
- [...]

- Nik be hartu [neben] zati bat eta, baakixu, ba.
- Joe, egin behar zenduan /enbizendun/ bat amari erosi, etxe bat, eta beste bat zeuri.
- Bai, neuri!
- Hamasei urte euki arren.
- Hamasei urte euki arren... [...] neuk hartu neban parterik gitxien, ganera.
- Eta zuek nortzuk joan ziñien? Zuen enbarkaziñoan.
- Zein enbarkaziñotan? Koiñatuaaz jun nintzan, [...] Jesus.
- Ta zenbat lagun jua ziñien?
- Han hamazortzi lagun.
- Hamazortzi. Ta bakotxak hamasei milla pezeta?
- Bai.

16. Lekeitioko diru-etxeak

- **Erref:** LEK-046/032
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:43:17. **Bukatu:** 00:44:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Banketxeak

Laburpena:

<p>Banco de Bilbao, Caja de Ahorros eta Banco de Vizcaya, hiru diru-kutxa zeuden Lekeition. Bakoitza non zegoen.</p>

Transkripzioa

- Ze banku euezan zu gaztie ziñenien?
- Ni gaztia nitzanian? Banko Bilbao, han zelan don zapaterixa?
- Berton?
- Ha zapaterixa hor, harexen beste aurreko blokien behian. Haurren, haurren familixa, "ogerlekos", Joxe Mari "ogerlekos" hantxe, [...] Gero pasa zirin hona, bai. Eta bestia "Caja de Ahorros", on zapaterixa daon lekuen. Lehenengo hamen, hamen, "Seguros Bilbao" daon lekuen, ta gero han imiñi eben. Ta gero "Banko Bizkaia" hamen. Hiru banko.

17. Ortozik pilotan

- **Erref:** LEK-046/035
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:47:02. **Bukatu:** 00:48:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

<p>Pilotan asko egiten zuten. Ortozik, ez zegoen abarketak erosteko dirurik eta. Eurek egindako pilotekin. 1906an egindakoa da Lekeitioko frontoia.</p>

Transkripzioa

- Gero frontoin asko pelotan be bai.
- A bai?
- Bai... oin ortozik para ta... ez zeuan abarketak erosteko dirurik eta kendu abarketak eta.

- Ta zelako pelotak zien?
- Ba geuk eiñikuak, geuk eiñikuk ahal dan modura, gomiaz barru ein eta, gero harixakin [...], laniaz ta.
- Zuek eiñikuek. Eta nun olgetan zenduen? Frontoia nun euen ba?
- Bertan, gu jaidxo giñin... mil nobezientos seisin-edo eiñikua da eta... frontoia. Gu baiño asko ariñau eiñikue da.
- Lehengo frontoie?
- Bai.
- Hor kontzejupien-edo ez ziñien ibiltzen?
- Ez!
- Ez? han ez?
- A hori frontoian.

18. Bi seme zesta puntako jokalariaik

- **Erref:** LEK-046/037
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:48:32. **Bukatu:** 00:49:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

<p>Lekeition pilotari onak izan dira. Akarregi eta Mendieta famatuena, eskuz. Bi seme zestako pilotariaik izan dira. Bat Ameriketara bizi da eta bestea Milanen. Milanen ere egon zen frontoia.</p>

Transkripzioa

- Ta hamen, frontoi eukindde, Lekitton eongo zin ba pelotari onak.
- Bai bai bai, egon diraz, egon diraz bai.
- Zeintzuk?
- Asko jokatute, bueno baiña, badakixu ze eguan? Jateko dirurik ez eguan, ta danak itsasora, hantxe eguan ta, baiña pelotan ondo jokatuten ebezenak be baeguan e? urten Akarregik bakarrik urten eban, bai Akarregik ta Mendieta bestie.
- Ta zure semiek be esan dozu...
- Ez, harek, zestakuk diraz, zestakuak, Ameriketara daukat bat ezkondata, urtin urtien etorten da. Ta bestia Italian. Ha be urtin urtien, udan.
- Ta Italian nun dau ba bestie?
- Milan.
- A, Milanen.
- Han badau euskal etxie frontoi ta guzti, Milanen!
- Ez. Harek ez dauke.
- Ez, Milanen dauela euskal etxie fronto ta guzti.
- Egon zan, eongo da zestakua.
- Bai baiña...
- On ez.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com